Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

4929

AGINDUA, 2010eko Urriaren 19koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Justizia arloko «Manuel de Irujo» saria iragarri eta arautzen duena.

Deialdi honen bidez, publikoki goraipatu eta saritu nahi dira ibilbide pertsonal edo profesionalen bidez Justiziarekiko eta haren balioekiko konpromisoaren lekukotza ematen duten eta Zuzenbidearen edozein diziplina edo espezialitate garatzen eta sustatzen duten pertsonak eta taldeak.

Sariaren izena 1891ko irailaren 25ean Lizarran jaio zen eta 1937ko maiatzaren 17an Espainiako II. Errepublikako Justiziako ministro izendatu zuten Manuel de Irujo y Ollo jaunaren oroimenez ezarri da. Irujok, bere kargua hartu zuenean, erakundeetan egin behar zuen lanaren printzipioak aldarrikatu zituen: gizarteberdintasuna, gizabanakoen askatasuna, demokrazia politikoa, justizia, zuzenbide-estatua eta botere judizialaren independentzia. Oso egoera lazgarrian borrokatu behar izan zuen printzipio horien alde.

Horregatik guztiagatik, Justizia eta Herri Administrazio Sailak, bere esparruko eskumenak baliatuz, 2010eko «Manuel de Irujo» saria iragarri eta arautzea erabaki du.

Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen helburua 2010eko «Manuel de Irujo» saria iragarri eta arautzea da. Sari honen bidez, publikoki goraipatu eta saritu nahi dira ibilbide pertsonal edo profesionalen bidez Justiziarekiko eta haren balioekiko konpromisoaren lekukotza ematen duten eta Zuzenbidearen edozein diziplina edo espezialitate garatzen eta sustatzen duten pertsonak eta taldeak.

2. artikulua.– Sariaren ezaugarriak.

Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz saria lortzeko nahiko merezimendu erakutsi duen pertsonari edo pertsonei emango zaie deialdi honetako saria. Sari gisa Nestor Basterretxea eskultore ospetsuaren lan bat emango da aintzatespen publikoko ekitaldi batean eta, horrez gain, 15.540 euro, ordainketa bakarrean.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

4929

ORDEN de 19 de octubre de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se convoca y regula el Premio «Manuel de Irujo» de Justicia.

La finalidad de la presente convocatoria es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que con su trayectoria personal o profesional dan testimonio de su compromiso con la Justicia y los valores que la alientan y contribuyen al desarrollo y fomento del Derecho en cualesquiera de sus disciplinas o especialidades.

La denominación del premio responde a la memoria de D. Manuel de Irujo y Ollo, nacido en Lizarra-Estella el 25 de septiembre de 1891 y nombrado Ministro de Justicia de la II República Española el 17 de mayo de 1937. Al comienzo de sus responsabilidades de Gobierno proclamó los principios a los que habría de sujetarse su actuación institucional, así como la igualdad social, las libertades individuales, la democracia política, la Justicia, el Estado de Derecho y la independencia del Poder Judicial, luchando por su vigencia y respeto en dramáticas circunstancias.

Por todo ello, en el marco de las competencias que le corresponden al Departamento de Justicia y Administración Pública, se procede a convocar y regular, para este año 2010, el premio «Manuel de Irujo».

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

El objeto de la presente Orden es convocar y regular la concesión del Premio «Manuel de Irujo» para 2010, cuya finalidad es destacar y reconocer públicamente la actuación de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, en el ámbito de la Justicia y de los valores y principios que la inspiran, así como en la contribución al desarrollo del Derecho en cualquiera de sus disciplinas o especialidades.

Artículo 2.– Características del premio.

El premio de la presente convocatoria se concederá, a criterio del Jurado, a la persona o personas que acrediten méritos suficientes para ello. El premio consistirá en la entrega de una escultura del prestigioso escultor Nestor Basterretxea, en un acto de reconocimiento público y en una cantidad dineraria de 15.540 euros, que se abonará en un único pago.

3. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honen bidez iragarritako saria honakoek jaso dezakete: jokabidearen eta ibilbidearen bitartez Justiziaren balioak sustatzeagatik eta Zuzenbidearen edozein diziplina edo espezialitate sustatzeagatik edo garatzeagatik gure gizartean nabarmendu diren pertsona fisiko zein juridiko publiko nahiz pribatuek.

Justiziaren arloan sona duten pertsona fisiko edo juridikoek proposatu ahal izango dituzte hautagaiak, eta agindu hau indarrean jartzen denetik hilabete bateko izango da proposamenak aurkezteko epea.

Hautagaien izenak Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzara bidali beharko dira (Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz), azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako bideetako baten bitartez.

4. artikulua.– Sariaren kudeaketa.

Justizia Sailburuordetzari dagokio deialdi honen kudeaketa-lanak egitea.

5. artikulua.– Epaimahaia.

1.– «Manuel de Irujo» saria irabazteko hautagaiak epaimahai batek ebaluatuko ditu, eta hark erabakiko du saria nori eman.

Hona hemen Epaimahaiaren osaera:

– Epaimahaiburua: Justizia eta Herri Administrazioko sailburua.

– Epaimahaikidea: Justiziako sailburuordea.

– Epaimahaikidea: Juan Luis Ibarra Robles jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakaria.

– Eapaimahaikidea: Blanca Bajo Palacio andrea, Prokuradoreen Euskal Kontseiluko lehendakaria.

– Epaimahaikidea: Francisco Javier Quel López jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa.

– Epaimahikidea: José Antonio Primicia Orduna jauna, Justiziaren sektoreko ordezkari sindikala, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren eremuan ordezkaritza duten sindikatuek izendatutakoa.

2.– Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendaria izango da epaimahaiko idazkaria. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina botoa emateko eskubiderik ez.

3.– Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak hartu ahal izango du erabakia. Hartzen diren erabakien eta jarduera guztien akta egingo du epaimahaiko idazka-

Artículo 3.– Personas Beneficiarias.

Podrán optar al premio convocado por la presente Orden, aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que con su actuación y trayectoria contribuyan de manera destacada en el seno de nuestra sociedad a la promoción de los valores de la Justicia y al fomento y desarrollo del Derecho en cualesquiera de sus disciplinas o especialidades.

El plazo de presentación de candidaturas será de un mes, a contar desde la entrada en vigor de la presente Orden, y los/las candidatos/as podrán ser propuestos por personas físicas o jurídicas con reconocido prestigio en materia de Justicia.

Las candidaturas deberán dirigirse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, a la Viceconsejería de Justicia del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Artículo 4.– Gestión del premio.

Corresponderá a la Viceconsejería de Justicia la realización de las tareas de gestión que conlleva la presente convocatoria.

Artículo 5.– Jurado.

1.– La evaluación de las candidaturas del Premio «Manuel de Irujo» se llevará a cabo por un Jurado, que fallará el candidato a quien se le otorgue el Premio.

El Jurado estará compuesto por:

– Presidenta: la Consejera de Justicia y Administración Publica.

– Vocal: el Viceconsejero de Justicia.

– Vocal: D. Juan Luis Ibarra Robles, Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

– Vocal: Dña. Blanca Bajo Palacio, Presidenta del Consejo Vasco de Procuradores.

– Vocal: D. Francisco Javier Quel López, Decano de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco.

– Vocal: D. José Antonio Primicia Orduna, representante sindical del sector Justicia designado por las centrales sindicales representativas en el ámbito de la Administración de Justicia del País Vasco.

2.– En el Jurado actuará como Secretario, con voz pero sin voto, el Director para la Modernización de la Administración de Justicia.

3.– Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos, pudiendo dirimir la Presidenta los empates que se puedan producir. El Secretario del Jurado levantará acta de cuantas actuaciones y acuerdos se adopten,

riak. Akta horretan sariaren epaitza oinarritzen duen irizpen arrazoitua ere jaso beharko da.

4.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. eta 29. artikuluetan jasotako kasuetan epaimahaikideek ezingo dute epaimahaian parte hartu eta interesdunek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte.

6. artikulua.– Hautagaiak ebaluatu eta aukeratzea.

1.– Epaimahaia irizpide hauetan oinarrituko da bere erabakia hartzeko:

a) Proposatutako pertsonak edo pertsonek Justizia eta Zuzenbide alorreko jardueretan luzaroan parte hartu izana.

b) Justizia eta Zuzenbidearen balioak garatzen egindako lanak duen berezko garrantzia.

c) Saritutako pertsonak edo pertsonek egindako jarduerak edo ibilbideak gizartean izan duen oihartzuna eta eragina.

2.– Deialdi honetan jasotako irizpideei kasu eginez epaimahaiaren uste eta jakinduria leialaren arabera hartutako erabakia justifikatzen duten arrazoiak adieraziko ditu epaimahaiaren epaitzak eta, horrez gain, saritutako pertsonaren edo pertsonen ibilbidearen esanahiaz egiten duen balorazioa ere azalduko du.

3.– Epaimahaiak saria eman gabe uztea erabaki dezake, proposatutako pertsonak edo pertsonek, epaimahaikide gehienen ustez, saria jasotzea merezi ez badute.

7. artikulua.– Ebazpena.

1.– Epaimahaiak saria emateko edo hutsik uzteko epaitza eman ondoren, Justiziako sailburuordeak «Manuel de Irujo» saria esleitzeko Ebazpena emango du. Bertan, ebazpena bera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila eta saridunari edo saridunei jakinarazi dakiela aginduko du.

2.– Sariak jendaurrean banatuko dira, horretarako propio antolatutako ekitaldi batean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi honetan aurreikusi gabeko kontu guztietan, arautegi osagarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea bukatzen du. Aurka egiteko, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri diezaiokete Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi

debiendo figurar el dictamen razonado que fundamente el fallo del premio.

4.– Los miembros del Jurado deberán abstenerse y podrán ser recusados en los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 6.– Evaluación y selección de candidaturas.

l.– El Jurado basará su fallo en los siguientes criterios:

a) Implicación prolongada de la persona o personas propuestas en el ámbito de la Justicia y del Derecho en el que ha venido desarrollando su actividad.

b) Relevancia intrínseca de la actuación realizada en el desarrollo de los valores de la Justicia y del Derecho.

c) Repercusión e influencia en la sociedad de la actuación o trayectoria desarrollada por la persona o personas premiadas.

2.– El fallo del Jurado expresará las razones que justifican, según su leal saber y entender, el acuerdo adoptado en relación con los criterios de adjudicación contenidos en esta convocatoria, así como la valoración que le merece el significado y trayectoria de la persona o personas premiadas.

3.– El Jurado podrá decidir, asimismo, que el premio se declare desierto cuando, a juicio de la mayoría de sus componentes, la persona o personas propuestas no resulten merecedoras del premio.

Artículo 7.– Resolución.

1.– Después de que el Jurado emita su fallo concediendo el Premio o declarándolo desierto, el Viceconsejero de Justicia dictará la correspondiente Resolución de adjudicación del premio «Manuel de Irujo» ordenando que se publique en el Boletín Oficial del País Vasco y que se notifique a la persona o personas premiadas, en su caso.

2.– La entrega de los premios se hará en un acto público convocado al efecto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria, será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tri-

Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean. Bi kasuotan, errekurtsoak jartzeko epeak, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko Urriaren 19a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

bunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses. En ambos casos, los plazos de interposición se contarán a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de octubre de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.